

## Resumen Ejecutivo/ Laburpen Exekutiboa/ Executive Summary

### EAEko herritarrek ekintzailtza nola hautematen duten

- Oro har, adierazleetan ikus daiteke EAEko helduek ekintzailtzari buruz duten pertzepzioa hobetu egin dela. Gaitasunei eta ekintzailtzaren aldeko joerei lotutako hautemateen adierazleak ez ezik, egoera orokorrari eta inguruneari buruzko adierazleak ere hobetu dira.
- EAEko helduen ia erdiak (% 47,5) uste du ekiteko beharrezko ezagutzak eta gaitasunak dituela, eta oso nabarmena da ekintzailtza-prozesu batean sartuta daudenen eta ez daudenen arteko aldea. Sartuta daudenen ia guztiek uste dute ezagutza hori dutela; gainerakoek, aldiz, % 40,5.
- Euskal herritarren erdiak baino pixka bat gehiagok (% 53,2) adierazi du porrotari beldurra oztopo bat dela negozio bat abiarazteko. Ehuneko hori pixka bat txikiagoa da ekintzaileen artean (% 38,6), eta, beraz, egonkor mantendu da aurreko urtearekin alderatuta (% 39,5). Hala ere, ekiteko ezagutza eta gaitasuna dutela uste dutenen artean, porrotari beldur dioten EAEko helduen ehunekoia erdia baino gutxiagora murriztu da (% 21,5).
- Hortaz, porrotari beldurra ekintzailtztatik aldentzeko arrazoi gisa gutxitu egin den arren, herritarren artean (% 53,2) garrantzi handia izaten jarraitzen du inguruko beste herrialde batzuekin alderatuta.
- Epe laburrean ekiteko aukerak dituztela hautematen dutenen kopurua lau puntutan hobetu da, % 30,3ra arte. Pandemia garaian erregistratutako datuaren (% 16,5) bikoitza den arren, 2019. urteko datuaren azpitik dago oraindik (% 40,1). EBko batez bestekoarekin (% 49,2) alderatzen badugu, txikia izaten jarraitzen duela esan dezakegu.
- Ekin duten pertsonen ezagutza sei puntu igo da (% 41,2; 2022an, aldiz, % 35,3), eta datua pixka bat altuagoa da ekintzaileen artean (% 60,7). Hala ere, datua nahiko baxua da beste lurralde eta herrialde batzuekin alderatzen badugu.
- EAEko hiru pertsonatik batek uste du erraza dela bere kabuz negozio bat hastea, eta erdiak baino pixka bat gutxiagok (% 46,5) uste du ekitea lanbide-aukera ona dela. Lurraldeka alderatzen badugu, EAE lehenengo postuetan dago bi aldagai horietan; dena den, datuak baxuak dira EBko batez bestekoarekin alderatuta. Pentsatzekoa denez, ehuneko horiek altuagoak dira ekintzaileen artean (% 41 eta % 60,7 hurrenez hurren).
- Gizonezkoekin alderatuta, EAEko emakume helduen ehuneko txikiago batek uste du ekiteko ezagutzak eta gaitasunak dituela (emakumeen % 44,7 eta gizonen % 50,4). Gainera, negozio bat hastekotan, oztopo handiagoa da porrotari beldurra (emakumeen % 58 eta gizonen % 48,3) eta emakume gutxiago dira ekin duten norbait ezagutzen dutenak (emakumeen % 37,9 eta gizonen % 44,5). Nolanahi ere, alde horiek desagertu egiten dira ekintzaileen datuak aztertzen ditugunean. Egoera bestelakoa da aukeren hautemateari dagokionez; ekiten duten emakumeen ehunekoia (% 32,3) **gizonena baino hamar puntu txikiagoa da.**

### EAEko helduen dinamika eta jarrera ekintzailea

- 2023an, jarduera ekintzailearen tasa (TEA) % 5,5 izan zen EAEn, hau da, egoera egonkor mantendu da; izan ere, herritarren % 5,5 3,5 urte arteko negozio berri bat abian jartzeko prozesuan sartuta dago.
- EAEn hainbat urtez jarraian TEA tasak 2004az geroztiko serie historikoaren batez bestekoa gainditzen du. EAeko TEA tasa 2023an (% 5,5) ia puntu bat altuagoa da adierazle horrek azken bi hamarkadetan izan duen batez bestekoarekin alderatuta (% 4,6).
- 2023an herritarren % 2,6 hiru hilabete baino gutxiagoko enpresetan (enpresa sortu berriak) sartuta dago, eta % 3,4 3 eta 42 hilabete arteko enpresetan (enpresa berriak).
- Euskal herritarren % 7,0k adierazi du hurrengo hiru urteetan ekiteko asmoa duela. Aurreko urteekin alderatuta datua pixka bat jaitsi den arren, EAEn etorkizunean ekiteko gaitasuna dutenen aurreikuspenak finkoak dira. 2023ko tasak puntu batean gainditzen du serie historikoko batez bestekoa (% 5,7).
- EAeko helduen % 5,5a 2023an 42 hilabete baino gehiago dituzten negozioen jabeak dira. Aurreko urteko datua (% 4,9) baino puntu erdi altuagoa den arren, 2004-2023 aldiko batez bestekoarekin (% 6,6) alderatuta, puntu bat gutxiago izaten jarraitzen du.
- 2023an helduen % 2,2k adierazi zuen bere jabetzako negozio bat itxi, saldu edo utzi zuela, hau da, aurreko urtean baino 0,5 puntu gehiago. Beste batzuen esku funtzionatzen jarraitzen duten negozioen ehunekoa kenduta, itxitako negozioen tasa efektiboa 2023an % 1,4 izan zen, hau da, 2022an (% 1) baino 4 dezimal gehiago.
- Ixteko arrazoi nagusia errentagarritasun txikiari lotuta dago (% 25,7). Hala ere, arrazoi horren indarra aurreko urteko datuarekin (% 40,4) alderatuta nabarmen jaitsi da. Ondoren, arrazoi hauek daude: arrazoi pertsonalak edo familiari lotutakoak (% 17,0); erretiroa (% 11,6), aurreko urtearekin alderatuta (% 1,9) nabarmen handitu dena; finantzaketa lortzeko zailtasunak (% 11,1); eta beste lan bat edo negozio-aukera bat aurkitu izana. Azken arrazoi horren garrantzi erlatiboa nabarmen handitu da negozio bat ixteko arrazoiaren artean (aurten % 17,8 eta 2022an % 3,6).
- Beste lurralde eta herrialdeekin alderatuta, EAeko TEA tasa nahiko parekidea da, eta genero-parekidetasunaren arloan erreferentea da jarduera ekintzaileari dagokionez. Ekintzailetza-ahalari dagokionez, aldea handitu da, eta emakumeekin alderatuta (% 6,3) gizon gehiagok (% 7,8) dute hurrengo hiru urteetan ekiteko asmoa.

### **EAEn ekiten duten pertsonen profila**

- EAEn ekiten duten herritarren artean genero-arrakala ezabatzen duen lurralde gisa finkatu da EAE. Alde horretatik lurraldea nabarmendu egiten da EBrekin, Estatu Batuekin edo beste herrialde aurreratu batzuekin alderatuta, ekiten duten gizonen tasak emakumeena baino nabarmen altuagoa izaten jarraitzen baitu.
- EAEn hasierako fasean dauden ekintzaileen batez besteko adina igo da, 44 urtera, hau da, datuen serie historikoko maximoa. Kopuru hori 2005-2023 aldiko batez bestekoa (40 urte) baino hiru urte gehiago da.
- Azken urteetan ikusi den egonkortutako ekintzaileen batez besteko adinaren igoera progresiboa gelditu da. Lehen aldiz zazpi urtean 50 urtetik behera dago (49).

- EAEn ekiteko asmoa duten herritarren batez besteko adina pixka bat igo da: 2023an 39 urte da, aurreko urtean baino bi urte gehiago. Hala ere, datua bat dator ia kolektibo horrek 2005-2023 serie historikoan izan duen batez besteko adinarekin (38 urte).
- EAEn ekin duten emakumeen batez besteko adina (41 urte) pixka bat txikiagoa da gizonenarekin (47 urte) alderatzen badugu.
- Beste herrialde batzuekin alderatuta, EAE nabarmendu egiten da hasierako fasean dauden ekintzaileen adina nahiko altua delako. Adin-tarte handienari dagokion TEA proportzioari dagokionez, EAE dago zerrendaren buruan, ekintzaileek 44 urtetik aurrera dutelako. Bestalde, TEA gazteen (25-34 urte) ehunekoari dagokionez, diru-sarrera handiak dituzten herrialdeen artean azkena da.
- TEA ekintzaileen % 56,2k unibertsitateko ikasketak ditu. Ahalmena dutenen tartean, bigarren urtez jarraian igo da ekiteko asmoa duten eta goi-mailako ikasketan dituztenen ehunekoa (% 62; 2022an % 58,6 eta 2021ean % 52,6). Gainera, nabarmen igo da enpresa bat sortzearekin zehazki lotutako prestakuntza-maila altua/aurreratua uste dutenen TEA ehunekoa (% 50,8; 2022an, aldiz, % 39,6). Hala ere, ehuneko hori % 29,7ra jaisten da finantza-gaiei lotutako ezagutza-maila altura mugatzen bagara.
- Ekin duten emakumeen artean (TEA emakumeak), EAEn ekin duten gizonekin alderatuta, gehiago dira gradu edo graduondokoa edukita ekiten dutenak. Hala ere, negozio bat abiarazteko gaietan ezagutza espezifikoei (finantza-gaiak barne) buruzko maila altua duten emakumeen ehunekoa nabarmen txikiagoa da.
- 2023an EAEko TEA herritarren ia % 4 atzerritarrak ziren (% 79 Europako beste herrialde batzuetan jaioak eta % 21 Hego Amerikan). Ehuneko hori nabarmen igo da (% 16,3) EAEn hurrengo hiru urteetan ekiteko asmoa duten pertsonen kopuru totala aintzat hartzen badugu. Azken kasu horretan, ia erdia (% 52,7) Hego Amerikako herrialdeetan jaiotakoak dira.
- 2020az geroztik lehen aldiz beste lanik ezean bizimodua ateratzeko ekin duten pertsonen ehunekoa nabarmen jaitsi dela ikus daiteke (% 53,9). Urtebetean ia 15 puntu jaitsi da 2022. urtearekin alderatuta (% 69,2). Beherakada hori are nabarmenagoa da EAEn sortutako negozio berrien hasierako tartean.
- Aberastasuna sortzeko edo errenta handitzeko ekin duten herritarren ehunekoa modu argian berreskuratu da (2023an % 37,5; 2022an, aldiz, %27,2). Hala ere, “munduan aldaketak egiteko” ekiteko arrazoiak behera egin du (2023an % 29,4; 2022an % 36,4).
- “Familiako tradizioari jarraitzeko” ekiteko arrazoiaren garrantzi erlatiboak (% 20) ere behera egin du, baina datuek altu izaten jarraitzen dute serie historikoa aintzat hartuta.

### **EAEn ekiten duten pertsonen sortutako negozioen ezaugarriak**

#### Jarduera ekonomikoa

- Sortutako hasierako hamar negozioetatik ia zazpi (% 68,2) zerbitzu tradizionalak eskaini dituzte, eta % 20k ezagutza handia eskatzen duten zerbitzuak.
- Industria sortutako hasierako negozio guztien % 6,4 da. Aurreko urtearekin alderatuta puntu bat jaitsi den arren (% 7,7), datu altuetan mantentzen da 2021eko datua kontuan hartzen badugu (% 4,3).

- Proporzionaliki, gehiago dira zerbitzu tradizionaletan ekin duten emakumeak (% 73,8; gizonen kasuan, aldiz, % 63,2), nahiz eta ezagutza handia eskatzen duten zerbitzuetan generoen arteko aldea desagertu egin den aurreko urtearekin alderatuta. Aipatzekoa da, halaber, industria-sektoreko genero-arrakala tradizionala oso modu nabarmenean estutzen dela hasierako fasean dauden negozioetan (versus finkatuak).

#### Forma juridikoa

- Hasierako fasean dauden negozioen erdiak (% 52,2) banako enpresaburu edo enpresaburu autonomo gisa jarduten dute, lautik batek (% 24,5) sozietate mugatu gisa eta % 5,9k kooperatiba gisa. Azken forma juridiko horren pisua Espainian erregistratzen denaren bikoitza da (% 3).

#### Tamaina eta enpleguaren sorrera

- Enplegaturen bat duen TEAREN proportzioa mantentzen da (% 34,4; 2022an, aldiz, % 33,8). Ekin duten gizonen kasuan, ehuneko horrek handiagoa izaten jarraitzen du (% 38,3; emakumeen kasuan, aldiz, % 29,9).
- Nahiz eta enplegaturik gabeko hasierako negozioak (autoenplegua) 5 puntu igo diren aurreko urtearen aldean (% 29,7 eta % 24,7, hurrenez hurren), 2023an autoenplegatuen proportzioa batez besteko historikoaren azpitik dago (% 32).
- Azken urtean kontratazioen bat egin duten eta hasierako fasean dauden negozioek gora egiten jarraitzen dute (% 36,3; 2022an % 31 eta 2021ean % 24,7). Gainera, proportzio hori hamar puntu handiagoa da TEA fasean (% 36,3) negozio finkatueta baino (% 26,9).
- Ekintzaileek azken urtean sortutako enplegu guztietatik, % 67,5 lanaldi osoko kontratuak izan dira, eta ia hamarretik zazpi (% 68,8) kontratazio mugagabearen modalitatearen barruan.
- Datozen bost urteetan kontratatzea espero duen TEAREN proportzioa mantentzen da, hasierako fasean dagoen biztanleria ekintzailearen erdia baino zertxobait gehiago (% 52,4), negozio finkatuko biztanleria baino zazpi puntu gehiago (% 45,7). Gutxi gorabehera, % 20k espero du bost pertsona baino gehiago kontratatu ahal izatea denbora-tarte horretan.

#### Berrikuntza eta nazioartekotzea

- EAEn sortutako negozioen orientazio berritzaileak bizkortzen jarraitzen du. Berriz ere markak hautsi dira berrikuntzari dagokionez, bai produktu/zerbitzuari dagokionez, bai erabilitako prozesuei dagokionez. Sortutako negozioen % 35,3k berrikuntzak egiten ditu produktu/zerbitzuan, eta % 31k erabilitako teknologia edo prozesuetan (2023an % 25,9).
- Intentsitate handiagoko negozio berrien proportzioak ere gora egin du, txertatzen dituzten berrikuntzen irismenari dagokionez. % 14,7k nazio- edo mundu-mailako produktuetan berritzen dute (2022an % 10ek) eta % 13,3k berrikuntza erabilitako prozesuen edo teknologien ikuspegitik aztertzen dugunean (% 13,3; 2022an, aldiz, % 11,9).
- Oraindik ere genero-arrakala handia dago berrikuntzari dagokionez. Negozio berritzaile berrien proportzioa ia bikoitza da gizonen kasuan emakumeen kasuan baino.

- Nazioartekotzeari dagokionez, gora egin du kanpora saldu duten hasierako negozioen proportzioak (% 26; 2022an, aldiz, % 20,4). Hala ere, fakturazioaren % 75 baino gehiago esportatzen duten proiektuen multzoak bere pisu erlatiboa mantentzen du.

### **Ekintzaitza-prozesuaren finantzaketa**

- 24.500 euro izan dira EAEn hasierako fasean dauden ekintzaileek negozioa abian jartzeko erabili duten batez besteko dirua. Ia 5.000 euro igo da aurreko urtearen aldean.
- Errekorra 150.000 euro baino gehiago mobilizatu dituzten negozioen proportzioan (% 20).
- Berriz ere behera egin du 10.000 euro baino gutxiagorekin ekin duten hasierako negozioen proportzioak (% 21,5; 2022an, aldiz, % 29,5).
- Egonkor mantentzen dira ziklo ekintzailearen beharrak finantzatzeko erabilitako formulak: % 79,1ek aurrezki pertsonalak erabili ditu –% 36,32k bide hori bakarrik erabili du–, eta lautik batek (% 23) senideen eta lagunen ekarpenak erabili ditu.
- Finantza-erakundeek gero eta zeregin handiagoa dute EAeko ekintzaitza-prozesuaren finantzaketan. Hiru proiektutik batek (% 31,1) eskuratu du finantzaketa-aukera hori, eta, horri esker, bere finantza-premia globalen ia % 64,4 bete du.
- Behera egin du laguntza-programen eta dirulaguntzen bidez finantzatu diren hasierako negozioen proportzioak (% 14,7; 2022an, aldiz, % 25,1). Programa horietakoren bat eskuratu zutenek, batez beste, behar izan zuten lau eurotik bat finantzatu zuten (% 26,4).
- Bigarren urtez jarraian, inbertsio informalaren tasaren maximo historikoa EAEn. Lehen aldiz, biztanleria helduaren % 5 gainditzen du (% 5,6), eta EBko herrialdeetako batezbestekoarekin bat egiten du.
- Balio altuetan jarraitzen du modu profesionalean inbertitzen duten pertsonen esleitutako inbertsio informalaren proportzioak. EAeko hamar pertsona informaletik batek erantzun zion profil horri 2023an.

### **Digitalizazioa eta jasagarritasunerako orientazioa**

- Hasierako fasean dauden hamar negoziotik ia zortzik (% 78,5) teknologia digitalak erabili ditu edo horiek erabiltzeko hobekuntza-planak planteatu ditu. Soilik hamarretik bik (% 21,5) uste dute inolako teknologia digitalik erabili gabe funtziona dezaketela.
- Erabilitako digitalizazio-tresnak kontuan hartuta, TEAren % 28,5ek helbide elektronikoa erabiltzen du bakarrik, % 21,7k webgune propioa du eta % 27,3k sare sozialak ere erabiliko lituzke. Digitalizazio-maila aurreratukoak kontuan hartzen baditugu, % 16,3k online salduko luke bere webgunearen bidez, eta % 6,4k dagoeneko AAKo tresnak txertatu ditu.
- Digitalizazio-maila handiagoa eragozten duten arazoak edo oztopoak, EAeko biztanleria ekintzailearen iritzia araberak. Heren batek trebakuntza edo prestakuntza ezarekin lotzen du, beste heren batek finantzaketa-arazoekin eta beste heren baten arabera digitalizazioa ez da sartzen bere lehentasunen artean.

- EAEn sortu berri diren negozioek ingurumen- eta/edo gizarte-alderdiak aintzat hartzen jarraitzen dute. % 65,2k bere negozioen ingurumen-inplikazioak hartzen ditu aintzat, eta % 63,8k gizarte-inplikazioak. Gainera, alderdi horiek kontuan hartzen dituzten emakumeek gidatutako negozioen proportzioa handiagoa da gizonen hasitako proiektuekin alderatuz gero.
- Kontuan hartzeaz gain, inpaktuak minimizatzeko berariazko neurriak hartzen dituzten negozioen proportzioa zertxobait txikiagoa da. % 57,2k ingurumen-arloko inpaktu negatiboak minimizatzeko neurriak ditu, eta % 38,6k bere negozioen gizarte-inpaktua maximizatzeko ekintzak egin ditu.